

2016KO OTSAILAREN 11KO OHIKO BILKURA

Bilera hartan onarturiko ebazpenen laburpena ematen da argitara:

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONESTEA.

2015eko abenduaren 10eko eta 18ko aktak onartu dira.

2.- GALARKO UDALA TOKI AGENDA 21EN SARTZEKO HARTU BEHAR DIREN EBAZPENAK

- Galarko Udalaren Osoko Bilkurako kideek ederki dakite komunitatearen garapen iraunkorra lortu behar dela eta hura erdiesten ahal dela Red Nels-en (Iraunkortasuna xede duten Nafarroako Toki Entitateen Sarea) sarturiko Nafarroako beste toki entitateekin sareko lanean. Era berean, Iraunkortasuna xede duten Europako Hirien Karta (Aalborg Karta) eta 2004 Aalborgen 10 konpromiso zein diren jakinik, zera onartu dute AHO BATEZ:

Lehenik.- Iraunkortasuna xede duen Europako Hirien Karta (Aalborg Karta) izenpetzea eta horren helburuak lortzeko konpromisoa hartzea, Aalborgeko konpromisoekin bat eginik eta honako hauek kontuan harturik:

- Aalborg Karta sinatzen dugu.
- Aalborgeko konpromisoekin bat egiten dugu.
- Aalborgeko konpromisoen printzipio orokorren analisi integratua garatzearekin ados gaude. 12 hilabeteko epean eginen dugu, karta sinatzen den datatik aitzina, hura izanen baita helburuak zehazteko eginen dugun prozesuaren abiaburua. Era berean, analisiak testuinguru politiko bat izateaz gain, egungo konpromiso politikoak aipatu, eta gaur egungo erronkak ere deskribatuko ditu.
- Tokiko parte-hartze prozesu batean parte hartzearekin ados gaude, egungo AL21eko helburuak edo tokiko iraunkortasuneko jardueren beste edozein plangintza finkatzeko, betiere printzipio orokorren analisiaren emaitzak kontuan harturik.
- Gure lanak lehenestearekin ados gaude, 10 konpromiso hauek betetzeko:
 - Ados gaude tokiko helburuak finkatzearekin, dokumentua sinatu eta 24 hilabeteko epean,

Gobernatzeko moduak	Mugikortasun hobea eta trafikoa murriztea
Iraunkortasuna xede duen udal kudeaketa	Osasunerako Tokiko Jarduketa
Natur baliabide komunak	Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra
Kontsumo eta bizimodu arduratsuak	Berdintasuna eta gizarte justizia
Hirigintzaren plangintza eta diseinua	Tokikoa abiapuntu harturik orokorrera jo.
- kontuan harturik Aalborgeko Konpromisoen Eranskina, hura baita oinarria. Era berean, ados gaude helburu bakoitzarendako epeak ezartzearekin, baldin eta egokiak badira gure konpromisoak betetzen ari direla erakusteko.
- Aldian behin gure lorpenenak berrikustearekin ados gaude, eta herritarren eskura jarriko dugu.
- Iraunkortasuna xede duten Herri eta Hirien Kanpaina kontuan harturik, gure helburuak eta lorpenak jakinaraztearekin ados gaude. Era berean, lankidetzaren horrekin aurrerapenak berrikusi, eta elkarrengandik ikasiko dugu. Lehenbiziko berrikusketa 2020ean izanen da, eta bost urteren buruan eginen dira hurrengoak.

Bigarrenik.- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren bidez, Nafarroako Gobernuari prozesuaren finantzazioa eskatzea.

3.- TRW-KO LANGILEEKIN ATXIKIMENDUA ADIERAZTEN DUEN MOZIOA

Galarko Udalak badaki ZF-TRW NAFARROAKO ENPLEGUAREN DEFENTSAN lelopean enpresa horretako langileak mugitzen ari direla, eta, horregatik, ez ditugu onartzen ZF-TRW multinazionala langileak estutzeko egiten ari diren ekintzak, Nafarroako langile anitz gisa berekoak pairatzen ari baitira.

Nafarroako industria ahultzen ari da. Tamaina guztietako enpresetan enplegua galdu, eta lan baldintzek okerrera jo dute.

ZF-TRW automobilerako piezen bigarren hornitzailea da munduan.

ZF-TRW mende erditik goitik ari da Nafarroan. Gaur egun 250 langile kaleratzeko espediente baten bidez eta ekoizpenik eta inbertsiorik egin gabe enpresaren jarraipen arriskuan jartzen ari da.

Nafarroako Gobernuek lantegiaren etorkizunaren alde lan egin dute, eta horretan jarraitzen dute egun.

Ez da onartzen ahal nafar guztion dirua, Nafarroan lanpostuak sortzeko jarria, finantza ingeniartzaren bidez akziodunen onurara edo lan baldintza kaskarrak dituzten herrialdeetan inbertsioa egitera desbideratzea.

Aurreko guztia kontuan izanik eta ZF-TRWko langileen batzordeak eskaturik, Udalak bat egiten du enpresa horretako langileek egiten dituzten ekintza guztiekin.

4.- GAI JURIDIKOENDAKO DIRU-LAGUNTZA ARLEGI HERRIARI

Zinegotzi gehienak ados egonik, Arlegiko Kontzejuari 9.000 €-ko diru-laguntza ematea onartu da 2015eko hirigintza aholkularitzako gastuetarako, Udalaren eta Zendeiko Kontzejuen arteko Hitzarmenean dagoen aurreikuspenaren barnean.

5.- ESPARTZAKO UDAL PLANAREN BEHIN-BEHINEKO ALDAKETA ONARTZEA

Udalaren Planeko zehaztapen egituratzaile eta xehakatuaren behin-behineko aldaketa onartu da SGU.2 Sistema Orokorraren eta Espartzako S-4 Sektoreko UB-6.2 lursailaren esparruan. Juan Nuin Osés jaunak eta Beatriz Zugasti Laseca andreak sustatua da, eta hasiera batean 2015eko urriaren 8an onartu zen, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu Zerbitzura igortzeko.

6.- GOBERNUKO ORGANOEN KONTROLA

7.- MOZIOAK: SUBITZAKO KONTZEJUAREKIN HITZARMENA ONARTZEA FUTBOL ZELAIAN ARGIZTATZE DORREAK JARTZEKO

Gaia eguneko gai zerrendan sartzeko premia onartu da.

Futbol zelaian argizatze dorreak jartzeko hitzarmena onartu da, Galarko Udalaren eta Subitzako Kontzejuaren arteko Planaren barnean. Izan ere, plan horren xedea da kontzejuei kapital intsuldaketak egitea, eta horri jarraikiz, Udalak konpromisoa hartzen du kostuaren %60

diruz laguntzeko, Udalaren eta Galarko Kontzejuen arteko Hitzarmenak eta onarpenaren xedea den Hitzarmenak ezartzen dituzten baldintzetan.